

Kalean da 'Askatu korapiloa', Dut-en «lan zintzoena»

Doinu bizi nahiz astunak uztartu ditu Hondarribiko taldeak disko berrian

Gorka Erostarbe / Donostia

Dagoeneko kalean da Dut taldearen *Askatu korapiloa* lana. Esan Ozenki dizketxearekin kaleratu dute beren bakarkako hirugarren diskoa —laugarrena, Fermin Muguruzarekin egindakoarekin—. Bertan biltzen diren 10 kantuak «taldearen bilakaeraren isla» dira, hiru kideen hitzetan.

MUSIKAZALE askori askatuko zaio barneko korapiloa, Dut-en lan berria, *Askatu Korapiloa* izenekoa, dagoeneko kalean dela jakitean —hiru urte pasatxo egin dituzte bakarkako lanik atera gabe (At, 1996)—. Donostian aurkeztu zuten atzo disko berria taldeko hiru kideek.

Askatu korapiloa izenburua, «unea bizitzeko aldarrikapen gisa» jarri diotela azaldu zuen taldeko bateria jole Galder Izagirrek: «Gure sufrimendu eta zama guztiak errotik mozteko garaia iritsi delakoan gaude. Baldintzatzen gaituzten kanpoko gauza horietatik at egin nahi izan dugu diskoa. Izenburua, beraz, pertsonalki eta herri gisa ere uler daiteke». Izagirreren hitzetan, «bati baino gehiagori diskoa ilun samarra irudituko zaion arren, bai letren aldetik eta baita musikalki ere, nahiko lan baikor eta itxaropentsua da». Diskoak bi zati nagusi ditu, bateria jole iaioaren aburuz: «Lehen zuzena da, energetikoa, Dut-en lehen garaiari heltzen diotena. Bigarrena, aldiz, astunagoa, pisutsuagoa eta motelagoa ere bada». Halaber, «kanpoko eragin gutxien» izan duen diskoa dela gaineratu zuen Galder Izagirrek: «Disko zintzoena da alde horretatik, azkenaldian inoiz baino musika gutxiago entzun dugu eta. Zuzeneko soinuarekin lotura handia du eta nahiko lan *duteroa* da. Zaila da beste talde batzuekin erlazionatzea, eraginak ez baitira oso agerikoak».

Psylocibe-enean grabatua

Diskoaren grabaketa prozesuaz aritu zen bestalde, taldeko baxu jole Joseba Ponce. «*Ireki Ateak tour*-a amaitu ostean, 1998ko urrian, atsedendaldi bat hartu genuen,

nekatuta amaitu baikegunen». Ondoren, pixkana joan omen ziren kanta prestatzen. «Behin osaturik zeudenean, gure kontura grabatzea pentsatu genuen. Hala, Hondarribiko lokalean grabatu genituen kantuak urtarrean, Psilocybe-enean, Carlos Osinaga —Lisabö taldeko baxu jolea eta haren 16 pista-ko baekin. Estudio pirata bat muntatu genuen nolabait. Otsailean, aurrez grabaturikoa Azkarateko Katarain estudioetan nahastu genuen bi astez».

Musika lantzeko izan duten lasaitasuna eta astia hitzetan ere nabaritu dela azpimarratu zuen bestalde, taldeko gitarra jole Xabi Strubelek: «Gure kezak jaso ditugu letretan. Errepresioari, desarollismoari, dudaren aldarrikapenari, eta egoera pertsonalei ere egokitzen zaizkie». Halaber, *kañaren* ildotik jarraitzeaz gain, «erritmo dantzagarriak egiten saiatu» direla azaldu zuen: «Ferminekin egindako diskoan makinaren bidez lortu genuena, berezko espresioarekin lortzen saiatu gara».

Ahotsetan nahiz instrumentuen erabilpenean izandako hobekuntzaz ere aritu ziren Dutekoak: «Aurreko diskoan korrika eta presaka



EDURNE KOCH

Duteko hiru kideak, atzo, Donostian, *Askatu korapiloa* lan berria aurkeztu aurretik.

GALDER IZAGIRRE

Izenburua

■ ■ ■ «Gure sufrimendu eta zama guztiak mozteko garaia iritsi delakoan jarri diogu»

JOSEBA PONCE

Grabazioa

■ ■ ■ «Behin abestiak osaturik zeudenean, diskoa gure kontura grabatzea pentsatu genuen»

XABI STRUBEL

Ahotsa

■ ■ ■ «Oraingoan denbora gehiago izan dugu eta ahotsa borobilagoa dela nabari da»

moldatu behar izan genuen ahotsaren kontua, Manex abeslariak taldea utzi eta gero. Oraingoan, denbora gehiago izan dugu eta ahotsa landuago eta borobilagoa nabari da». «Instrumentuekin hobetzen duzun heinean, geroz eta sinpleago jotzen duzu, eta hori ere nabari da lan honetan. Ez dago birtuosismorik», gaineratu zuten.

Nafarroa eta iparraldeak jomuga

Barne mugez gain, «muga fisikoak» apurtu gura dituzte Dut taldeko kideek. Hargatik, asmo berezia dute Nafarroan

eta Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan (Lapurdi, Zubero eta Nafarroa Beherean) kontzertuak emateko. Lehen kontzertuak, baina, Gipuzkoan eskainiko dituzte hondarribitarrek. Hilaren 28an Oiartzungo Pagoan ariko dira, eta maiatzaren 5ean Zumaian. Ondoren, Bilbon izango dira, maiatzaren 6an, Elkartasun egunean, eta

maiatzaren 13an, Saran (Lapurdi), Herri Urrats jaia- ren bezperako egunean. «Hasiera batean astean behin joko dugu, eta behin erritmoa hartuta, gero agian gehiagotan ariko gara», azaldu zuten. Maiatza, ekaina eta uztaila beterik ei dituzte, beraz aukera anitz izango da Euskal Herrian Dut-en azken lanaz gozatzeko.

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

**III. ERAKUSTALDIA
HEMENGO ANTZERKIA**

Apirilak 7; 20:30 h.

Erraldoien txokoa (Descalzos 72)

XAHUTONDO TEATRO

"Rosaura tiene un fantasma" de Miguel Campión

ENTRADA LIBRE / SARRERA DOAN

LASARTE-ORIA

**GOLDEN APPLE
QUARTER**

"RADIO GOLDEN"

2.000 / Apirilak 7 / 20:00

SARRERA: 750 pzta.

MANUEL LEKUONA

KULTUR ETXEA

EUSKAL ANTZOKI SAREA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultur Departamentua
Lasarte-Oriako Udala